

## MAGIKUS – SERGIO DE ANDRÉS

*Magikus* familiei bideratutako ikuskizuna da, ipuinak, magia eta umorea konbinatzen dituen; ikuslea Sergio de Andresen mundu sorginean liluratzea lortzen du.

*Euskararen 2018ko Nazioarteko Egunean, Familia Antzerkia Zikloan, Magikus* herri hauetan eskainiko da:

Localidad	Lugar	Fecha	Hora
Uharte Arakil	Sala Alhóndiga	01/12/2018	17:00
Tudela	Centro Cívico Rúa	05/12/2018	18:00
Jauntsarats	Apeztegierriko ganbara	15/12/2018	19:00
Imárcoain	Asociación Urdiña	15/12/2018	13:30

**Sinopsia:** magoaren kapela luze batean ipuin dibertigarrien hautsak, magiaren hautsak, txiste tanta batzuk eta Sergio de Andres nahasten baditugu, magikoki ilusionatu eta barre egingo dugu, eta untxia norbaitek aurkitzen badu, itzuli diezaiola, gizagaixoak azken aldian galdu egin baitzuen, eta ez du aurkitzen!

**Iraupena:** 60 minutu

**Fitxa artistikoa:** sortzailea, kontalaria eta magoa; Sergio de Andrés

**Konpainiaren ibilbidea:** Sergio de Andrés aktorea, ipuin kontalaria, aurkezlea eta musikari profesionala da, nafarra, publikoarekin lan egiten 19 urtetik gorako esperientzia duena. Ibilbidean zehar, bakarka, lan mordoa egin du, ia beti umorea eta irudimena erabilita; halaber, bestelako lanak egin ditu Nafarroako antzerki-konpainiekin batera.